

## SIDEROMETALURGIA ETA EKIPAMENDU-ONDASUNAK SIDEROMETALURGIA Y BIENES DE EQUIPO

### LABORDE HERMANOS



(Santi Yaniz)

Gipuzkoa  
Andoain

*Josune Zaldua Goena*

Andoaingo Martin Ugalde Kultur Parkea 2002. urtean inauguratu zuten, Laborde Hermanos SA etxeak eraikitako fabrika-multzoaren zati baten barruan. Hala, fabrika-instalazioak zaharberitu eta erabilera berrietarako baliatu zituzten; hain justu ere, kultura-enpresak ipintzeko. Zaharberitzeko prozesu horretan, instalazio eta eraikin batzuk desagertu eta beste batzuk birmoldatu egin zituzten. Hala eta guztiz ere, garai bateko enpresen eraikin esanguratsuak ageri dira oraindik ere parkean; haietako batzuk, gure industria-arkitekturaren adibide emblematicoak. Laborde Hermanos SA elkartearen jatorrizko eraikinak, hain zuzen: fabrikaren lehenengo pabiloia, eta jantoki-eraikina (Eusko Jaurilaritzak kultura-ondare izendatu zituen bi eraikinok 2001eko urtarrilean, monumentuko kategoriarekin).

Etxe honen historia 1926an hasi zen; hain zuzen ere, Guillermo Laborde Garatek eta bere seme Eduardo, Jose Maria, Manuel eta Enrique Laborde Werlindenek, Laborde Hermanos SL enpresa sortu zutenean. Enpresaren xedea dotitasunez ebakitzeko tresnak fabrikatzea zen; esate baterako, barautsak, ardatzak, fresak, otxabuak, terrailak, etab. Erremintok karbono-altzairuz zein altzairu lasterrez ekoizten zituzten.

El Martin Ugalde Kultur Parkea de Andoain, inaugurado el año 2002, se instaló en parte del conjunto fabril erigido por la firma Laborde Hermanos S.A. y supuso un ejercicio de rehabilitación y reutilización de las instalaciones fabriles para dotarles de nuevos usos, en este caso acogiendo diferentes empresas culturales. Durante ese proceso de rehabilitación desaparecieron instalaciones y edificaciones y se remodelaron otras. No obstante, el parque conserva todavía construcciones significativas de la antigua empresa que son ejemplos emblemáticos de nuestra arquitectura industrial. Se trata de los edificios originarios de Laborde Hermanos S.A.: el primer pabellón de la fábrica y el Edificio de Comedores, ambos calificados como Bien Cultural con la categoría de Monumento por el Gobierno Vasco en enero de 2001.

La historia de la firma se remonta a 1926, año en que Guillermo Laborde Gárate y sus hijos Eduardo, José María, Manuel y Enrique Laborde Werlinden fundan la empresa Laborde Hermanos S.L. Su objeto era la fabricación de herramientas de corte de precisión, tales como brocas, machos, fresas, escariadores, cojinetes de rosca, etc., tanto en aceros al carbón como rápidos.

Manuel eta Enrique Laborde anaiak industria-ingeniarik ziren, bai eta enpresaren zuzendari kudeatzaileak ere. Hala, sektorearen azkeneko aurrerapenen berri izanik, Alemaniako eta Ingalaterrako makineriarik modernoena jarri zuten beren enpresan; esate baterako, altzairu lasterrezko barrak ebakitzeko trontzatzeko makina bat (Atlanta markakoa, Ingalaterrako Sheffield hiriko Skillingtons Limited etxeak egina). Hala, makina horretatik atera ziren Laborde etxeak egindako lehendabiziko barautsak. Laborde Hermanos enpresa aitzindaria izan zen bere sektorean; hala, teknika etengabe berritu zuten, harik eta 70eko hamarkadaren amaieran desegin zuten arte. Estatuan gatz-bainuzko labea ezarri zuen lehen enpresa izan zen, baita erremintak tenplatzeko ekipo pirometrikoa ere. Gerra Zibilaren ostean, metal gogorrezko erremintak fabrikatzeari ekin zion, Alemaniako Essen hiriko Fried. Krupp Widia-Fabrik etxearen lizentziarekin (TRUTXUELO, 1998, 232-241); horretaz gain, industria-ekimen berriak ere bultzatu zituen. Halaber, 1939an Laborde Hermanos SA lantegia Sarralde Hermanos SA enpresarekin elkartu zen, eta makina-erremintaren sektoreko beste enpresa esanguratsu bat eratu zuten: Villabonako Sociedad Anónima Constructora Española de Máquinas Herramientas (SACEM).

Laborde sendiaren fabrika, hasieran, Andoainen ipini zuten, Bazkardo industria-auzoko pabiloi batean. Baina laster aldatu zuten herriko industria-gunea berri bilakatu zen tokira: Urnietarako errepidera. Kokapen ezin hobea zen, Norteko Trenbidetik, Plazaola Trenbidetik eta, ondoren, N-1 errepidetik gertu. Ikusteko industria-gunea eraiki zuten inguru horretan, 1928tik ia 60ko hamarkada amaiera arte.

Enpresaren jatorrizko gunea 1928 eta 1939 bitartean eraiki zuten, eta orduantxe finkatu zituzten enpresaren ezaugarri bihurtu ziren jarraibideak: funtzionaltasuna, arrazionaltasuna eta arkitektura modernoaren aldeko apustu argia. Izan ere, arkitektura enpresa-espíritu berriaren isla da; hala, errentagarritasun ekonomikoarekin eta eraginkortasun teknikoarekin lotutako elementutzat hartzen dute arkitektura. Lurrazalean garatutako fabrika-multzoa eraiki zuten, hainbat pationen inguruan egituraturik.

Los hermanos Manuel y Enrique Laborde, ingenieros industriales y directores gerentes de la empresa, conocedores de los últimos avances tecnológicos del sector; dotaron a su fábrica de la maquinaria más moderna procedente de Alemania e Inglaterra; entre ella una máquina tronczadora para cortar barras de acero rápido –marca Atlanta, de la firma Skillingtons Limited, de Sheffield (Inglaterra– de donde salieron las primeras brocas de la firma. Laborde Hermanos fue una de las empresas pioneras en el sector y la renovación técnica fue una constante hasta su disolución a finales de los años setenta. Fue la primera del Estado en instalar un horno de baño de sales con su correspondiente equipo pirométrico para temple de herramientas, y tras la Guerra Civil empezó a fabricar herramientas de metal duro con licencia de la casa Fried. Krupp Widia-Fabrik, de Essen (Alemania) (TRUTXUELO, 1998, 232-241), además de ser la impulsora de nuevas iniciativas industriales. En el año 1939 Laborde Hermanos S.A. se asoció con la empresa Sarralde Hermanos S.A. para constituir otra de las empresas más significativas del sector de la máquina herramienta: la Sociedad Anónima Constructora Española de Máquinas Herramientas (SACEM) de Villabona.

La primera ubicación de la fábrica de la familia Laborde fue un pabellón en el barrio industrial de Bazkardo, en Andoain, pero pronto se mudó a la que sería la nueva zona industrial de la villa: la carretera a Urnieta. Un emplazamiento inmejorable ubicado en las cercanías del Ferrocarril del Norte, del Ferrocarril del Plazaola y posteriormente de la Nacional 1. Allí se levantará todo un complejo industrial que fue conformándose desde 1928 hasta prácticamente finales de los años sesenta.

Entre 1928 y 1939 se levantó lo que sería el núcleo originario de la empresa y se marcaron las pautas que se convertirían en las señas de identidad de la empresa: la funcionalidad, la racionalidad y la evidente apuesta por la Arquitectura Moderna. Y es que la propia arquitectura se convierte en reflejo del nuevo espíritu empresarial que la adopta como elemento vinculado a la rentabilidad económica y la eficacia técnica. Se construyó así todo un conjunto fabril que se desarrolló en superficie, articulado en torno a diferentes patios.



Laborde Hermanos S.L. lantegiaren pabiloi nagusiaren ikuspegia hogeita hamarrekota hamarkadaren hasieran (Andoaingo Udal Artxiboa. Laborde Fondoa)

Laborde Hermanos S.L. vista del pabellón matriz de la fábrica. (Archivo Municipal de Andoain. Laborde Fondoa)



Jantoki-eraikin historikoaren egungo ikuspegia. (Santi Yaniz)

Vista actual del antiguo edificio de Comedores. (Santi Yaniz)

Lehenengo eraikina, jatorrizkoa, 1928koa da. Oinplano angeluzuzeneko eraikin bakarra zen. Solairu bakarreko ekoizpen-nabea zen, eta, hegoaldeko muturrean, bulegoak eta etxebizitza zituen (bi solairuko atala). Fabrika-gunea guztiz funtzionala eta irekia zen, eta argiztapen eta aireztapen egokiak zituen. Etxebizitza, berriz, egoitza burgesa zen, ondo hornitua. Hormigoizko egitura eta adreiluzko itxitura zituen, terraza erako estalkiarekin. Jatormian, bolumen kubikoen eta garbien arteko jokoak egiten zuen (ekoizpen-nabearen horizontaltasunak kontraste egiten zuen etxebizitzatara zuzendutako atalaren garaierarekin), eta lerroak erabat soilak ziren. Bao etzanek era ordenatuan eta erritmikoan urratzen zuten horma-atala, eta angeluetan nola baiteko desmaterializazioa marrazten zuten. Era berean, bulego-gunean argizulo txikiak zituen, arrazionalismoan oihikoa den moduan. Zuriz erabat margotuta, ekoizpen-nabearen gailurrean sozietatearen izena zuen kartela ageri zen. Eraikin hau erabat modernoa izan zen; bai kronologiko goiz eraiki zutelako, bai bere egikeragatik eta konbikzio irragatik.

Gerora, 30eko hamarkada erdialdean, beste bi nabe atxiki zizkioten perpendikularrean; hala, multzoak «U» itxurako oinplanoa osatu zuen. Bi pieza horiek ere oinplano angeluzuzena eta solairu bakarra dituzte, eta jatorrizko eraikinaren lerroak jarraitu zituzten.

1939. urtean, langileentzako jantoki-pabiloi ikusgarria eraiki zuten. Atal horrek T erako oinplanoa zuen, eta hasierako eraikinak eta ondorengo handitzeek osatutako multzoaren parean zegoen, patio moduan itxiz. Atal honek ere hormigoizko egitura eta adreiluzko itxitura ditu, baita sotoa, beheko solairua eta beste bi solairu ere. Eraikin hau hainbat plano horizontalen bidez antolatutako dago, hegal handiko balkoi jarraituek definituta; ildo beretik, azken ho-

Efectivamente, el primer edificio, el edificio matriz, data de 1928. Se concibió como un único edificio de planta rectangular que acogía la nave de producción, de una única altura, y en su extremo sur las oficinas y vivienda, en dos alturas. El área fabril, totalmente funcional y abierta, disponía de una adecuada iluminación y ventilación. La vivienda, por su parte, respondía a un programa de residencia burguesa elegante y bien dotada. De estructura de hormigón y cerramiento de ladrillo con cubierta aterrazada, presentaba originariamente un juego de volúmenes cúbicos, limpios —en donde contrastaba el carácter horizontal de la nave de producción con la altura de la parte dedicada a vivienda— y una sobriedad de líneas absoluta. Los vanos apaisados rasgando el lienzo de muro, de forma ordenada, rítmica, dibujaban una desmaterialización en los ángulos. Contaba también con pequeños óculos, típicos del racionalismo, en la zona de oficinas. Totalmente pintado en blanco, mostraba una cartela con la razón social coronando la nave de producción. Este edificio supuso un extraordinario ejercicio de modernidad, tanto por su temprana cronología como por su resolución y decidida convicción.

A mediados de los años treinta se le adosaron dos naves más de manera perpendicular en cada una de las esquinas, conformando así un conjunto de planta en «U». Estas dos piezas, también de planta rectangular y una única altura, seguían las líneas del edificio originario.

En el año 1939 se construyó el sorprendente pabellón de Comedores para obreros. De planta en forma de T, está dispuesto en la parte frontal del espacio que formaban el edificio inicial y sus ampliaciones posteriores, de manera que lo cierra a modo del patio. También de estructura de hormigón y cerramiento de ladrillo, cuenta con sótano, planta baja y dos pisos. La construcción se organiza mediante una serie de planos horizontales definidos por

riek fatxada nagusiaren erdian kokatutako eskailera helikoidal bakartu batez lotuta daude, eta eskailera horietatik barrera sartzen da eraikineko solairuetara. Nabarmentzekoa da pabiloiaren horizontaltasunaren –aipatutako hegalek, solairu bakoitzeko erremate-barandek eta bao etzanez nabarmenduta– eta eskaileraren arteko kontrastea. Eraikina erabat soila da, eta konposizioa lerro bertikalen eta horizontalen arteko jokora mugatzen da, baita bolumenen eta hutsarten konbinaziora ere. Hala, eraikinak ia eskulturdimentsioa hartzen du.


Osotasun gisa dago antolatuta eta proiektatuta, eta erabileren arabera diseinatu zuten: beheko solairuan jantzigia eta komuna zeuden, gizonentzat zein emakumeentzat, baita ekonomatoa ere; lehenengo solairuan jantokiak; eta bigarrenean, azkenik, liburutegia eta lorategidun terraza. Hala eta guztiz ere, eraikinaren eginkizun nagusietako bat langileentzako ikastetxea izan zen (aprendiz-eskola). Eraikin hau 40ko hamarkadako argitalpenetan agertu zen, eta honelaxe aurkeztu zuten: «Aurrerapen moderno guztiekin eraikitako pabiloia; instalazioetan egin beharreko lan delikatueterako prestakuntza tekniko sendoa emateko xedea duena, bai eta heziera moral zaindua duten espezialistak lortzeko helburua duena ere» (ANÓNIMO, 1944, 2-3). Modernotasunaren paradigmatzat hartuta, eraikinak garaiko enpresa-filosofia jarraitzen zuen, eta bertan paternalismo tradizionala eta irudi erabat berritua uztartzen dira.

balcones corridos de notable voladizo, unidos por una escalera helicoidal exenta ubicada en el centro de la fachada principal, que permite el acceso a las diferentes plantas del edificio. El contraste entre el carácter horizontal del pabellón –subrayado por medio de los citados voladizos, las barandillas de los remates de cada piso y los vanos apaisados– y la escalera resulta sorprendente. La sobriedad del edificio reduce su composición al juego de líneas verticales y horizontales y a la combinación de volúmenes y vacíos, adquiriendo una dimensión casi escultórica.

El edificio está organizado y proyectado de una forma íntegra, y se diseñó en función de diferentes usos: la planta baja se dedicaba a ropero y lavabo, para hombres y mujeres, y economato; el primer piso a comedores; y el segundo y último a biblioteca y terraza con jardín. No obstante, una de las funciones más importantes del edificio fue el de escuela para obreros (Escuela de Aprendices). Publicaciones de los años cuarenta se hicieron eco de este edificio, presentándolo como «un pabellón construido con todos los adelantos modernos, cuyo objeto era obtener en sus aulas especialistas con sólida preparación técnica y cuidada educación moral, en cada una de las delicadas labores que han de ejecutar en sus instalaciones» (ANÓNIMO, 1944, 2-3) Considerado como paradigma de la modernidad, el edificio respondía a la filosofía empresarial de la época, en la que se combinaba el paternalismo tradicional con una imagen plenamente renovada.



Jantoki-eraikineko eskaileraren xehetasuna. (Santi Yaniz)  
Detalle de la escalera del edificio de Comedores. (Santi Yaniz)



Laborde Hermanos S.A. enpresaren areografia. (Andoaingo Udal Artxiboa. Laborde Fondoa)

Aerografía de la empresa Laborde Hermanos S.A. (Andoaingo Udal Artxiboa. Laborde Fondoa)

Laborde Hermanos SA enpresak bere hazkunde-dinamika propioa jarraitu zuen, eta multzoa handitzen jarraitu zuen instalazio berriak eta interesgarriak erantsiz. Horien artean, nabarmentzekoa da Widia metala fabrikatzeko pabiloia (1941), 1957an proiektatutako bulegoak edota galdaketa-nabea eta gasolina-zerbitzugunerako estalki harri-garria, biak 1958koak. Tamalez, eraikin horiek guztiak desagertuta daude.

Fabrika-multzo interesgarri honetan, hainbat banaketa egin zituzten 70eko hamarkadatik aurrera, eta, 1994aren ostean, erabilera berriak izan zituen. Ondorioz, hainbat aldaketa egin zituzten. Halaxe lortu du gaur egungo errealitate iristea, hain zuzen ere fabrika-eraikinak berriro erabiltzeko eta interpretatzeko eta beren ondare-balioa nabarmentzeko oreka zaila bilatzen den egunotara heltzea.

Bai jatorrizko eraikinean, bai jantoki-pabiloian, birmoldaketak egin dituzte, baina betiere hasierako espirituari eutsirik. Zalantzarik gabe, Gipuzkoako eta Euskal Herriko arkitektura modernoaren alerik harrigarrienetako baten aurrean gaude. Industria-arkitektura honek material, egitura eta forma berriekin bikain esperimentatzen du programaren beharrak konpontzeko, eta bere eraginkortasuna irmotasunez frogatzen du; izan ere, aurea hartzen die beste arkitektura-esparru batzuetan geroago erantsi dituzten oinarri teknikoek eta estetikoek. Eraikinok oso goiz egin zituztenez (lehen pabiloien proiektua 1928koa da), Gipuzkoako arkitektura garaikidearen atarian daude; hala, lehen mailako arkitekturaren adibide dira beren egikera bikaina

La empresa Laborde Hermanos S.A. continuó su propia dinámica de crecimiento y siguió ampliando el conjunto con nuevas e interesantes instalaciones. Destacaban entre ellas el pabellón para fabricación de metal Widia, del año 1941; las oficinas, proyectadas en el año 1957, y la nave de fundición y la sorprendente cubierta para gasolinera, ambas firmadas en el año 1958. Lamentablemente todas estas construcciones han desaparecido.

El interesante conjunto fabril que se generó fue objeto de segregaciones a partir de los años setenta y, tras 1994, nuevos usos ocuparán su espacio acometiéndose diversas modificaciones. Se llegará así a la realidad de hoy, cuando asistimos a un difícil equilibrio entre la reutilización y reinterpretación de un inmueble fabril y su valor patrimonial.

Los dos edificios, tanto el edificio originario como el pabellón de Comedores, han sido objeto de remodelaciones pero mantienen su espíritu inicial. Estamos, sin ninguna duda, ante algunos de los edificios más sorprendentes de la Arquitectura Moderna del territorio guipuzcoano y del País Vasco: una arquitectura industrial que experimenta de forma admirable con nuevos materiales, estructuras y formas para resolver las necesidades del programa, y que demuestra de manera contundente su eficacia, anticipándose a presupuestos técnicos y estéticos que sólo con posterioridad se incorporarán a otros ámbitos arquitectónicos. Su temprana cronología (el proyecto del primer pabellón data de 1928) los coloca en el umbral de la arquitectura

gatik, eta garaiko arkitektura abangoardistenari erreferentzia argiak egiten dizkiete.

Manuel Laborde Werlindenek sinatu zituen eraikin-proiektu hauen planoak. Industria-ingeniari hori, halaber, Laborde Hermanos SA enpresaren zuzendarietako bat izan zen. Hala ere, Luis Tolosa Amilibia delinearazaila proiektugilea da obra hauen arduraduna. Amerikako eta Europako arkitektura ederki ezagututa (Alemaniakoa batez ere), Luis Tolosak arkitektura berria osorik mamitzen jakin zuen, proiektutik bertatik abiatuta, eta bikain gauzatu zuen. Eraikin hauexekin heldu zion Tolosak ibilbide profesionalari. Ondoren, industria-eraikin bikainak egin zituen, EAEko arkitektura modernoaren adibide esanguratsu direnak: Laborde Hermanos SA, Nueva Cerámica de Orio SL eta Ziako dira bere lanetako batzuk.

#### BIBLIOGRAFIA

ANÓNIMO, 1944, 2-3 • AZPIRI ALBÍSTEGUI, A. (COORD.), 2004, 253-261 • COLLANTES GABELLA, E., 2010, 233-293 • FERNÁNDEZ ALTUNA, J. J., 2004, 325-333 M • FERNÁNDEZ ALTUNA, J. J.; TRUTXUELO GARCÍA, M., 2002, 343-376 • GARCÍA BRAÑA, C., 2004, 36-59 • MENDIETA ARECHEDERRA, J. M.; OLAZÁBAL ARRIZABALAGA, M.; SANZ ESQUIDE, J. Á., 1990, 120-121 • PÉREZ DE LA PEÑA, G., 2004B, 224 • TRUTXUELO GARCÍA, M., 1998, 225-297 • ZALDUA GOENA, M. J., 2000, 47-53 • ZALDUA GOENA, M. J., 2007, 43-57.

contemporánea en el territorio, y su magistral resolución los significa como ejemplos de una arquitectura de primer orden con claras referencias a la arquitectura más vanguardista del momento.

Los planos de los proyectos de estos edificios vienen firmados por Manuel Laborde Werlinden, ingeniero industrial y uno de los directores de la empresa Laborde Hermanos S.A. Sin embargo, fue el delineante proyectista Luis Tolosa Amilibia el responsable de estas obras. Gran conocedor de la arquitectura americana y europea, sobre todo alemana, Luis Tolosa supo asumir la nueva arquitectura en su integridad desde el mismo proyecto y la ejecutó de una forma magistral. Con estos edificios Tolosa inaugura una brillante trayectoria profesional que se materializará en una extraordinaria serie de construcciones industriales que constituyen algunos de los ejemplos de Arquitectura Moderna más significativos del País Vasco: Laborde Hermanos S.A., Nueva Cerámica de Orio S.L. y Ziako son algunas de sus obras.

#### BIBLIOGRAFÍA

ANÓNIMO, 1944, 2-3 • AZPIRI ALBÍSTEGUI, A. (COORD.), 2004, 253-261 • COLLANTES GABELLA, E., 2010, 233-293 • FERNÁNDEZ ALTUNA, J. J., 2004, 325-333 M • FERNÁNDEZ ALTUNA, J. J.; TRUTXUELO GARCÍA, M., 2002, 343-376 • GARCÍA BRAÑA, C., 2004, 36-59 • MENDIETA ARECHEDERRA, J. M.; OLAZÁBAL ARRIZABALAGA, M.; SANZ ESQUIDE, J. Á., 1990, 120-121 • PÉREZ DE LA PEÑA, G., 2004B, 224 • TRUTXUELO GARCÍA, M., 1998, 225-297 • ZALDUA GOENA, M. J., 2000, 47-53 • ZALDUA GOENA, M. J., 2007, 43-57.